

EKINTZAILETZAN ETA BERRIKUNTZAN INBERTITZEKO ZERGA PIZGARRIEN GIDA






Gida honek, Lurralde Komuneko araudian, eta Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako araudietan aurreikusitakoaren arabera, ekintzailertzan eta berrikuntzan inbertitzeko zerga-pizgarriak jasotzen ditu.

AURKIBIDEA

1. Sarrera eta laburpena	4
2. Zerga pizgarriak inbertitzailea pertsona fisikoa bada (PFEZ)	6
2.1 Kenkariak mikroenpresetan, enpresa txiki edo ertain berrietan edo berriki sortutakoetan edo enpresa berritzaileetan inbertitzeagatik	7
2.2 Kenkaria enpresa sortu berrietan edo berriki sortutakoetan inbertitzeagatik.....	10
2.3 Kenkariak hazkunde-aukera handia duten erakundeak finantzatzeagatik	11
3. Zerga pizgarriak inbertitzaile pribatuarentzat - pertsona juridikoa	15
3.1 Pizgarria: enpresetan partaidetzak eskualdatzean salbuespena	16
3.2 Pizgarria: partaidetza maileguak	20
3.3 Ekintzailtza sustatzeko eta ekoizpen-jarduera indartzeko erreserba.....	22
3.4 Pizgarria: inbertsioetarako erreserba berezia (IEB) nafarroan	23
3.5 Berriazko kenkaria i+g+b finantzatzeagatik	24
4. Laburpena	27
5. Eranskina: kenkaria enpresa sortu berrietan edo berriki sortutakoetan inbertitzeagatik [autonomia-erkidegoak (AAEE)]	29



01

SARRERA ETA LABURPENA

Zerga-araudiak hainbat zerga-pizgarri aurreikusten ditu ekintzailertzan eta berrikuntzan inbertsio pribatua sustatze aldera.

Zerga-pizgarri edo -onura horiek, zerga-bilketari dagokionez, herritarrei ekosistema lagunkoi eta erakargarri bat eskaini ahal izateko agintariek egiten duten ahalegina erakusten dute, ekintzailetzako enpresetan eta proiektuetan inberti dezaten.

Administrazioak sinisturik daude ideia berritzaileak gauzatzea funtsezkoa dela gizarteak, oro har, aurrera egiteko; hortaz, zer hoberik ekintzailetza-ekosistema sustatzeko, ahaleginak herritarrekin partekatzea baino? Paradigma horren pean, zergek oso onura interesgarriak dakartzkiete ekintzaileen proiektuak babesten aurrezkiak inbertitzea erabakitzen dutenei.

Inguruabar horietan, pertsonak bi aukera dituzte: aurrezkiak partikular moduan inbertitu, kontuan izanik horrek **Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan (PFEZ)** eragingo duela; bitarteko sozietario edo enpresarial baten bidez taldean inbertitu, kontuan izanik horrek **Sozietateen gaineko Zergan** (aurrerantzean Sozietateen Zerga) eragingo duela.



Hurrengo koadroan herritarrek aipatu ditugun arloetan dituzten zerga-pizgarri erakargarrienak jaso ditugu laburbildurik. Hauteman daitekeen moduan, inbertitzaileek zerga-onura sorta bat daukate, zergapetzen dituen administrazioaren araudiaren arabera: Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa edo gainerako autonomia-erkidegoak (Lurralde Komuna).

INBERTITZAILEA, PERTSONA FISIKOA - PFEZ				
Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Lurralde Komuna	Nafarroa
Kenkariak mikroenpresetan, enpresa txiki edo ertain berrietan edo berriki sortutakoetan edo enpresa berritzaileetan inbertitzeagatik		Kenkaria enpresa sortu berrietan edo berriki sortutakoetan inbertitzeagatik	Kenkaria enpresa sortu berrietan edo berriki sortutakoetan inbertitzeagatik	-
		Kenkariak hazkunde-aukera handia duten erakundeak finantzatzeagatik		

INBERTITZAILEA, PERTSONA JURIDIKOA - Sozietateen Zerga				
Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Lurralde Komuna	Nafarroa
Partaidetzak besterentzea				
Partaidetza-maileguak			-	-
Ekintzailetza sustatzeko eta ekoizpen-jarduera indartzeko erreserba			-	Inbertsioetarako erreserba berezia (IEB)
-	Hirugarren batzuek egindako I+G+b jarduera finantzatzea		-	Hirugarren batzuek egindako I+G+b jarduera finantzatzea

Pizgarri horiek erakunde bakoitzaren foru-araudietan eta PFEZ eta Sozietateen Zerga arautzen dituzten legeetan aurreikusten dira, eta modu desberdinean konfiguratzen diren neurri oso erakargarriak eskaintzen dituzte. Horretarako, ondoren aztertuko ditugun baldintzak bete behar dira.

Neurrietako batzuen araudia konplexua denez, gida honetan xehetasunez aztertuko ditugu horietako bakoitza, eta araudi bakoitzaren konfigurazioa eta betekizunak azalduko ditugu. Halaber, araudi bakoitza kasu praktiko argigarriekin azalduko dugu.

02

ZERGA PIZGARRIAK INBERTITZAILEA PERTSONA FISIKOA BADA (PFEZ)

Startup-etan eta enpresa berritzaileetan inbertitzeak zuzeneko kenkariak ekar ditzake inbertitzaileak ordaindu beharreko PFEZ kuotan. Alegia, PFEZ kontzeptuan sortutako zorraren kopuru bat deskontatzeko eskubidea da, zergadunari dagokiona. Nolanahi ere, lurraldeen artean dauden desberdintasunak esanguratsuak dira.

Gainera, Lurralde Komunaren araudiari dagokionez, azpimarratu beharra dago autonomia-erkidegoek eskumen legegilea dutela zerga-kenkarien arloan, eta eskumen hori gauzaturuta, kenkarien konfigurazioa herritarraren autonomia-erkidegoaren arabera aldatu egiten da¹.

Hori esanda, zer neurri izan daitezke erakargarriak proiektu ekintzaileak finantzatzera dirua bideratzen duen inbertitzaileentzat?

2.1 KENKARIAK MIKROENPRESETAN, ENPRESA TXIKI EDO ERTAIN BERRIETAN EDO BERRIKI SORTUTAKOETAN EDO ENPRESA BERRITZAILEETAN INBERTITZEAGATIK

Araba eta Bizkaia

Arabako eta Bizkaiko PFEZren foru-araudietan ezarritakoaren arabera, Startup batean inbertitzeak (hori eratzeko unean edo hurrengo 5 edo 7 urteetan) zuzeneko kenkariak ekar ditzake inbertitzaileak ordaindu beharreko PFEZ kuotan.

PIZGARRIA

Kenkaria PFEZ kuotan. Hau da, zuzenean gutxitzen du zerga-ordainketa.

KENKARIAREN KONFIGURAZIOA

- **Kenkaria (%)::**
 - » %10 enpresa berrietan edo berriki sortutakoetan akzioak edo partaidetzak harpidetzeagatik.
 - » %20 mikroenpresetan, ETE berritzaileetan akzioak edo partaidetzak harpidetzeagatik.

- » **Ekarpena:** bai kapitala, bai enpresa- nahiz lanbide-ezagutzak.
- **Kenkariaren gehieneko oinarria:**
 - » 100.000 euro urtean, eta enpresa berrietan edo berriki sortutakoetan harpidetutako akzioen edo partaidetzen erosketa-balioak osatuko du.
 - » 150.000 euro urtean, eta mikroenpresetan eta ETE berritzaileetan harpidetutako akzioen edo partaidetzen erosketa-balioak osatuko du².
- **Urtean kenkariak izango duen gehieneko muga:** zergaren likidazio-oinarriaren %15.

¹ Ikus eranskina.

² Enpresa berritzaileetat hartuko dira, partaidetza jasotzen den unean, Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 zenbakiko Arautegiaren (EB) 2. Artikuluko 80. Atalean xedatutakoa betetzen dutenak

* Aipatutako muga gairiditzeagatik kenkaririk izan ez duten kopuruak aplikatu ahal izango dira (mugak errespetatuz) hurrengo eta segidako bost urteetan amaituko diren zergaldietako auto-likidazioetan.

Adibidea: Demagun sozietate bat eratzeko unean 80.000 euroko ekarpena egiten zaiola sozietate horren kapitalari; ekarpena egin duenak berak ordaindu beharreko zergaren gaineko 8.000 euroko kenkaria, gehienez, izan dezake. %10eko kenkaria aplikatu ahal izateko, zerga-oinarria (ZO) ez da 53.334 eurotik beherakoa izango. ZO txikiagoa bada (40.000 euro, kasurako), ezin izango du kenkaria osotasunean aplikatu %15eko muga aplikatzeagatik; zergaldian 6.000 euroko kenkaria baino ezin da egin. Mugaren gaineko soberakina hurrengo zergaldietan aplikatu ahal izango da.

INBERTITZAILEAREN BETEKIZUNAK

- Ordaindu beharreko kuota bat edukitzea PFEZ kontzeptuarekin.
- **Loturarik eza:** sozietateetan izango duen zuzeneko edo zeharkako partaidetzak ez du %20 gaindituko, 2. mailako ahaideekin ere izan dezakeena kontuan hartuta (goranzkoa, beheranzkoa nahiz anai-arrebak).
- **Adi:** inbertsioari 5 urtetik gorako epean eutsi behar zaio. Hots, inbertsio egonkorra izango da.

INBERTSIOAREN BETEKIZUNAK

- Inbertsioa **mikroenpresa edo ETE sortu berrietan edo berriki sortutakoetan:**
 - » Akzioak edo partaidetzak erakundea sortzeko unean eskuratuko dira, edo eratu eta hurrengo 5 urteetan egindako kapital-zabalkuntza bidez, eta erakundearen ondarean iraungo dute bost urtetik gorako epean.
 - » Akzioak edo partaidetzak ez dira izango lehendik beste titularitate baten bidez burutzen zen jarduera bera gauzatzen duen erakunde batekoak.
- Inbertsioa **mikroenpresa edo ETE berritzaile sortu berrietan edo berriki sortutakoetan:**
 - » Akzioak edo partaidetzak enpresa horiek eratzen direnean edo eratu eta hurrengo 7 urteko tartean eskuratu behar dira.
 - » Epe hori ez da eskatuko baldin eta erakundeak arrisku-finantzaketako hasierako inbertsio bat behar badu, merkatu geografiko edo produktuen merkatu berri batean sartzeari begira negozio-plan bat eginda, hasierako inbertsio hori aurreko 5 urteetako urteko eragiketen bolumenaren batez bestekoaren %50etik gora denean.

INBERTSIOA JASOKO DUEN ENPRESAREN BETEKIZUNAK

- Merkataritza-izaera SA (sozietate anonimoa), SL (sozietate mugatua), SAL (lan-sozietate anonimoa) edo SLL (erantzukizun mugatuko lan-sozietatea) izango da.
- Egoitza soziala eta fiskala Espainian egotea.
- Ekonomia-jarduera gauzatzea; hau da, ez izatea inbertsio-tresna hutsa, eta ez izatea ondarea.
- Kotizatu gabeko sozietatea izatea.

- Inbertsioa mikroenpresetan edo ETE berritzaileetan egiten bada, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araubideko (SZFA) 13. artikulua betetzea.

Kenkaria egiteko, PFEZren auto-likidazioa aurkeztean kenkaria aplikatzea berariaz aukeratzeaz gain, zergadunak ziurtagiri bat lortu beharko du, akzioak edo partaidetzak saldu dizkion erakundeak emana; ziurtagiri horretan, lehen aipatutako betekizunak akzioak edo partaidetzak erosi ziren zergaldian betetzen zirela adieraziko da.

EZ BETETZEA

Aipatutako betekizunak ez betetzeak berarekin ekarriko du egindako kenkaria itzultzea, horri dagozkion berandutze-intereseekin.

LABURPENA

	Araba	Bizkaia
Kenkaria (%)	Enpresa sortu berrietan edo berriki sortutakoetan egindako inbertsioaren %10 Erakunde berritzaileetan egindako inbertsioaren %20.	
Kenkariaren gehieneko oinarria	100.000 euro (urteko)	
Muga: Urtean gehienez egin daitekeen kenkaria	Likidazio-oinarriaren %15eko muga (gehienez)	
Inbertsioa mantentzea	Gutxienez 5 urte mantenduko da	
Inbertitzean enpresak edukiko duen adina (gehienez)	5 urte enpresa sortu berrietan edo berriki sortutakoetan. 7 urte enpresa berritzaileetan.	

KENKARIARI LOTURIKO BESTELAKO ZERGA-ONURAK

- **Irabazi salbuetsia PFEZn:** zergadunak erakundeetan erositako akzioak edo partaidetzak (eskuratze horretan kenkariak aplikatu ondoren) saldu eta irabazia sortzen bada, irabazi hori salbuetsita egongo da baldin eta inbertsioak sei eta hamar urte bitarteko iraunaldia izan badu, eta salbuetsita egongo da %50ean salmenta hamaikagarren eta hamabosgarren urte bitartean egiten bada.
- **Salbuespena Ondarearen gaineko Zergan:** zergadunak PFEZn kenkaria aplikatu duen entitateetako akzioak Ondarearen gaineko Zergatik salbuetsita egongo dira, salbu eta horiek erosi zirenetik 15 urte baino gehiago igaro badira.

1. ADIBIDEA

Aitor, ingeniaria eta egoitza fiskala Bizkaian duenak 80.000 €-ko zerga-oinarria du PFEZn. Bere lagunak eraturako enpresa sortu berri batean 100.000 €-ko inbertsioa egitea erabaki du (%10eko kenkaria). Nola eragingo dio erabaki horrek bere PFEZri?

	PFEZ inbertsiorik gabe	PFEZ inbertsioarekin
Inbertsioa	-	100.000€
Inbertitzailearen laneko errenta garbiak (ZO)	80.000€	80.000€
Zerga-arintze aurretiko PFEZ	24.500€	24.500€
Aurrezpena kenkariagatik	0€	-10.000€
Ordaindu beharreko PFEZ	24.500€	14.500€
Errenta garbia PFEZ ondoren	55.500€	65.500€

*Laukiaren 1. zutabearen jasotzen da zein izango litzatekeen PFEZren auto-likidazioa bere lagunaren enpresan inbertsioa egingo ez balu. 2. zutabeak inbertsioa egin ondorengo emaitza erakusten du.

Proiektua arrakastatsua izan da, eta 6 urtera, inbertitzaile batek Aitorren partaidetzak erosi nahi ditu 300.000 €-an; hortaz, Aitorrek 200.000 €-ko irabazia lortuko du: Zenbat ordaindu beharko du Aitorrek zergatan?

Aitorrek **0 €** ordainduko ditu PFEZn, salbuetsita dagoelako. Alegia, **200.000 €-ko irabazia zergetatik libre legoke.**

2. ADIBIDEA

80.000 €-ko zerga-oinarria duen Maitek beste lagun bat du, eta horrek proiektu berritzaile bat darama aurrera xede horretarako eraturako ETE baten bidez (%20ko kenkaria). Beste 100.000 € inbertitu ditu, oraingoan proiektu horretan.

Taulak inbertitzailearen PFEZ likidazioak erakusten ditu, egindako inbertsioagatik kenkaria kontuan hartuta edo ez.

	PFEZ inbertsiorik gabe	PFEZ inbertsioarekin
Inbertsioa	-	100.000€
Inbertitzailearen laneko errentak (ZO)	80.000€	80.000€
Zerga-arintze aurretik ordaindu beharreko PFEZ	24.500€	24.500€
Aurrezpena kenkariagatik	0€	-12.000€
Ordaindu beharreko PFEZ	24.500€	12.500€*
Errenta garbia PFEZ ondoren	55.500€	67.500€

* Kenkaria 20.000 €-koa izango litzatekeen arren, oinarri zergagarriaren %15eko mugan ari da eta, ondorioz, kenkaria 12.000 €-koa izango litzateke. Gainerako 8.000 €-en soberakina ondorengo ekitaldietan aplikatuko litzateke, mugek horretarako aukera emanez gero.

Era berean, hipotetikoki partaidetzak saltzeagatik lortutako irabaziek ez dute zerga-kosturik izango 10 urte pasa arte, eta %50ean salbuetsita egongo dira hamaikagarren urtetik aurrera.

2.2 KENKARIA ENPRESA SORTU BERRIETAN EDO BERRIKI SORTUTAKOETAN INBERTITZEAGATIK

Lurralde Komuna eta Gipuzkoa

Lurralde Komuneko eta **Gipuzkoako** arautegiek ere aurreikusten dute inbertitzaileak PFEZn ordaindu beharreko kuotan zuzeneko kenkariak sortzeko aukera, baldin eta Startup-etan inbertitzen bada, hori eratzten denean edo hurrengo 3-5 urteetan.

KENKARIAREN KONFIGURAZIOA

- **Kenkaria (%): :**
 - » Gipuzkoa: %20 enpresa berrietan edo berriki sortutakoetan akzioak edo partaidetzak harpidetzeagatik.
 - » Lurralde Komuna: %30 enpresa berrietan edo berriki sortutakoetan akzioak edo partaidetzak harpidetzeagatik.
- **Ekarpena:** bai kapitala, bai enpresa- nahiz lanbide-ezagutzak.
- **Kenkariaren gehieneko oinarria:**
 - » Gipuzkoa: 50.000 euro urtean, eta harpidetutako akzioen edo partaidetzen erosketa-balioak osatuko du.
 - » Lurralde Komuna: 60.000 euro urtean, eta harpidetutako akzioen edo partaidetzen erosketa-balioak osatuko du.
- **Urtean kenkariak izango duen gehieneko muga:**
 - » Gipuzkoa: zergaren likidazio-oinarriaren %10.

**Aipatutako muga gaintzeagatik kenkaririk izan ez duten kopuruak aplikatu ahal izango dira (mugak errespetatuz) hurrengo eta segidako bost urteetan amaituko diren zergaldietako auto-likidazioetan.*

INBERTITZAILEAREN BETEKIZUNAK

- Espainian bizitzea.
- Ordaindu beharreko kuota bat edukitzea PFEZ kontzeptuarekin.
- Loturarik eza: zuzeneko edo zeharkako partaidetzak ez du %40 gaintutako, 2. maila arteko ahaideekin izan dezakeena ere kontuan hartuta (goranzkoa, beheranzkoa nahiz anai-arrebak).
- Gipuzkoa: Zergadunak, 3 urtetik gorako eta 12 urtetik beherako epean, ezin dezake kenkaria sortzen duen jarduerarekiko bestelako ordainpeko harremanik eduki (lanekoa nahiz merkataritzakoa) partaidetzako erakundearekin. Salbuespen dira mailegu-kontratuetatik eratorritakoa eta kontseilari edo administratzaile batek berezkoa duena, betiere hori lan-harreman baten bidez gauzatzen ez bada.

INBERTSIOAREN BETEKIZUNAK

- Akzioak edo partaidetzak entitatea sortzeko unean eskuratuko dira, edo eratu eta hurrengo 5 urteetan (Gipuzkoa)/3 urteetan (Lurralde Komuna) egindako kapital-zabalkuntza bidez, eta entitatearen ondarean iraungo dute 3 urtetik gorako eta 12 urtetik beherako epean.
- Akzioak edo partaidetzak ez dira izango lehendik beste titularitate baten bidez burutzen zen jarduera bera gauzatzen duen entitate batekoak.

INBERTSIOA JASOKO DUEN ENPRESAREN BETEKIZUNAK

- Merkataritza-izaera SA (sozietate anonimoa), SL (sozietate mugatua), SAL (lan-sozietate anonimoa) edo SLL (erantzukizun mugatuko lan-sozietatea) izango da.
- Egoitza soziala eta fiskala Espainian egotea.
- Ekonomia-jarduera gauzatzea; hau da, ez izatea inbertsio-tresna.
- Erakundearen funts propioen zifraren zenbatekoa ez da 40.000 €-tik gorakoa izango zergadunak akzioak edo partaidetzak eskuratu dituen erakundearen zergaldiaren hasieran³.
- Kotizatu gabeko sozietatea izatea.
- **Adi:** azpimarratu behar da ez dela eskatzen mikroenpresa edo ETE izatea.

Kenkaria egiteko, ziurtagiri bat lortu beharko da, akzioak edo partaidetzak saldu dituen erakundeak emana; ziurtagiri horretan, lehen aipatutako betekizunak akzioak edo partaidetzak erosi ziren zergaldian betetzen direla adieraziko da.

LABURPENA

	Gipuzkoa	Estatua
Hartzailea	Enpresa-mota guztiak Lehen 3 edo 5 urteak	
Kenkaria (%)	Enpresa sortu berrietan edo berriki sortutakoetan egindako inbertsioaren %20	Enpresa sortu berrietan edo berriki sortutakoetan egindako inbertsioaren %30
Kenkariaren gehieneko oinarria	50.000 euro (urteko)	60.000 euro (urteko)
Muga: Urtean gehienez egin daitekeen kenkaria	Likidazio-oinarriaren %10eko muga (gehienez)	-
Inbertsioa mantentzea	3-12 urte	3-12 urte
Inbertitzean enpresak edukiko duen adina (gehienez)	5 urte	3 urte

³ Ohikoena, zerga epealdia urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra doana izatea izango da.

2.3 KENKARIAK HAZKUNDE-AUKERA HANDIA DUTEN ERAKUNDEAK FINANTZATZEAGATIK

Gipuzkoa

Gipuzkoan, 2018ko urtarrilaren 1eko efektuekin, hazkunde-aukera handia duten erakundeak finantzatzeko kenkaria sortu da.

KENKARIAREN KONFIGURAZIOA

- **Kenkaria (%)** lehen mailako merkatuan akzioak edo partaidetzak harpidetzera zuzendutako zenbatekoaren gainean, hau da baloreak jaulkitzeko unean, eraketaren edo kapital handitzeen bitartez:
- **%30ekoa erakunde berritzaile sortu berrietan.** Erakunde berritzaile sortu berri gisa ulertuko da, aurreko bost urteen barruan eratuta egonda, eskakizun hauetakoren bat betetzen duena:
 - Berehalako etorkizunean, produktu, zerbitzu edo prozesu berriak edo bere sektorean teknikak duen egoerarekin alderatuta nabarmen hobeak direnak eta teknologiaren edo industriaren ikuspegitik porrot egiteko arriskua dutenak gauzatzen ditu.
 - I+G+b jarduerak egitetik sortutako gastuak eta inbertsioak bere utsiapen gastuen %10ekoak dira gutxienez, akzioak edo partaidetzak sinatu aurreko hiru zerga epealdietatik batean behintzat.
- » **%15ekoa hazkunde-prozesuan dauden erakundeetan.** Hazkunde-prozesuan dagoen erakunde gisa ulertuko da, merkatu geografiko edo produktu-merkatu berri batean sartzeko xedez egindako negozio planean oinarrituta, azken bost urteetako urteko batez besteko eragiketa bolumenaren %50etik gorakoa izango den arriskuaren finantzaketarako hasierako inbertsioa behar duena.
- **Ekarpina:** kapitala
- **Gehieneko kenkari-oinarria bi kontzeptuengatik:**
 - » 1.000.000 euro urtean, eta harpidetutako akzioen edo partaidetzen erosketa-balioak osatuko du. Hau da, kenkaria 300.000 € edo 150.000 € artekoa izango da, kontzeptuaren arabera.

- **Urtean kenkariak izango duen gehieneko muga:** sortuko den urteko kuota likidoa ez da kuota osoaren %30etik beherakoa izango.

**Kenkari hori gainerako kenkarietako azken lekuan aplikatuko da, eta aipatutako muga gainditzeagatik kenkaririk izan ez duten kopuruak aplikatu ahal izango dira (mugak errespetatuz) hurrengo eta segidako bost urteetan amaituko diren zergaldietako auto-likidazioetan.*

Adibidea: Demagun inbertitzaile batek 100.000 € inbertitzen dituela sortu berri den erakunde berritzaile batean; eragiketa horregatik, ordaindu beharko duen zergan 30.000 euro, gehienez, kendu ahal izango du. %30eko kenkaria aplikatu ahal izateko, kuota likidoa ez da 42.851,14 eurotik beherakoa izango. ZO txikiagoa bada (30.000 euro, kasurako), ezin izango du kenkaria osotasunean aplikatu %30eko muga aplikatzeagatik; zergaldian 21.000 euroko kenkaria baino ezin daiteke egin. Mugaren gaineko soberakina hurrengo zergaldietan aplikatu ahal izango da.

HARPIDETZAK SALTZEN DITUEN ERAKUNDEAREN BETEKIZUNAK

Eskakizunak, ordainketa egin eta 5 urtetik beherakoa izango ez den epealdian bete beharko dira:

- Merkataritza-izaera SA (sozietate anonimoa), SL (sozietate mugatua), SAL (lan-sozietate anonimoa) edo SLL (erantzukizun mugatuko lan-sozietatea) izango da.
- Egoitza soziala eta fiskala Espainian egotea.
- Mikroenpresa edo ETE izatea, Gipuzkoako SZFAko 13. artikuluan ezarritakoa betez.
- Konkurtso-egoeran ez egotea edo konkurtso-prozedura baten pean egoteko baldintzarik ez betetzea.
- Ez egotea negoziatorako onarturiko inolako merkatu antolatutan.
- Ondare-sozietateentzat aurreikusten diren inguruabarrak ez betetzea.
- PFEZFAko 89.hiru.4.d) artikuluan xedatutako jarduerak ez gauzatzea.
- Kotizatu gabeko sozietatea izatea.

Baldintza horiek, ordainketa egin eta gutxienez bost urtez bete beharko dira.

INBERTSIOA JASOKO DUEN ENPRESAREN BETEKIZUNAK

Aipatu ditugun baldintzez gain, baldintza hauek ere ematen dira:

- Erakundea duela denbora gutxi sortutakoa izatea, hau da, azken 5 urteetan

eraturakoa izatea.

- Negozio-plan bat landu.
- Erakunde onuradunak lortuko duen finantzaketa-zenbateko osoak ez du, arriskua finantzatzeko edozein neurriren barruan, 15 milioi euroko kopurua gaindituko diruz lagundu daitekeen enpresa bakoitzeko.
- Loturarik eza: ez zergadunak, ez eta 2. mailara arteko senideek ere, ezin izan dute erakundean, zuzenean nahiz zeharka, parte hartu harpidetza egin aurretik. Partaidetza horrek ezin du erakundearen kapital sozialaren edo boto-eskubideen %40tik gorakoa izan.
- Erakunde berritzaile sortu berriak direnean, horiek, lehen ezarritako 5 urteko epean, ordaindutako zenbatekoaren %50 ikerketa eta garapenarekin edo berrikuntza teknologikoarekin, nahiz horien emaitzak ekoiztearekin edo merkaturatzearekin lotura zuzena duten gastu edo inbertsioetara bideratu beharko dute.
- Hazkunde-prozesuan dauden erakundeak direnean, horiek, lehen ezarritako 5 urteko epean, ordaindutako zenbatekoaren %50 merkatu geografiko edo produktuen merkatu berri batean sartzeari helburu hartuta landuko den negozio-plana gauzatzera bideratu beharko dute.

Aipatutako epeak ez betetzeak, goitik zein behetik, berarekin ekarriko du egingandako kenkaria itzultzea, horri dagozkion berandutze-interesekin.

⁴ Nekazaritza, arrantza, esportazioa, lurren sal-erosketa, lehengaiak, finantza tresnak, aktiboen alokairua edo lagapena, higiezinaren sustapena, handizkako edo txikizkako ohiko salmenta jarduerak edo ondaren sal-erosketa, finantza jarduerak, besteak beste banka, aseguruak, maileguak edo factoring izenekoa, aktiboen alokairua edo lagapena, royalty-en edo lizentzien ustiapena, zerbitzu juridikoen edo kontabilitatekoen prestazioa, higiezinaren sustapena, basoen ustiapenari buruzko jarduerak, itsasontzien eraikuntza, ikatzaren produkzioa, altzairuaren ekoizpena, hotelen edo antzekoen edo jarduerak horietarako erabiltzen diren higiezinaren ustiapena edo zuzendaritza, adinekoren egoitzen edo pertsonak zaintzeko zentroen edo horietarako erabiltzen diren higiezinaren ustiapena edo zuzendaritza, elektrizitatearen sorkuntza edo esportazioa

INBERTSIOAREN ESKAKIZUNAK

- Harpidetutako akzioak edo partaidetzak zergadunaren ondarean **5 urtetik** beherakoa ez den **epean** egotea, ordaintzen direnetik, epe horren barruan hiltzen ez bada edo partaidetutako erakundea konkurtso prozedura baten ondorioz likidatzen ez bada.
- 5 urtetik beherakoa ez den epean, partaidetutako erakundearekin **ordaindutako harremanik ez** izatea, lanekoa edo merkataritzakoa bada ere, kenkaria sortzen duena ez dena, mailegu kontratuetatik sortutakoa eta kontseilari edo administratzaile bati dagokiona izan ezik, azken hori lan harreman baten bitartez egituratzen ez den bitartean.

LABURPENEA

	89 hir. 1) artikulua	89 hir. 2) artikulua
Hartzailea	ETE berritzailea. Lehen 5 urteak	5 urtetik beherako ETE
Kenkaria (%)	30%	15%
Kenkariaren gehieneko oinarria	300.000 €-ko kuota	150.000 €-ko kuota
Inbertsioaren mugak	1.000.000, gehieneko oinarri bateratua Gehenez kapitalaren %40	
Inbertsioa mantentzea	5 urte	
Beste alderdi batzuk	Nahitaezkoa da «erakunde berritzailea dela ziurtatzen duen aurretiko txostena», identifikazioa, eskaria eta memoria barne. Business Angels (ekarpena: lanbide esperientzia, ordainketarik gabe).	Beharrezkoa da zergen aurreko kontsulten eta adostasunen prozedura bidezko baimena. Business Angels (ekarpena: lanbide esperientzia, ordainketarik gabe).

ADIBIDEA

Ainhoa. Egoitza fiskala Gipuzkoan dauka, eta 80.000 €-ko errenta. 50.000 €-ko inbertsioa egin du sortu berri den Startup berritzaile batean (kenkaria %30). Zer aurrezpen ekar diezaioke PFEZn?

	PFEZ inbertsiorik gabe	PFEZ inbertsioarekin
Inbertsioa	-	50.000€
Inbertitzailearen laneko errentak (ZO)	80.000€	80.000€
Zerga-arintze aurretik ordaindu beharreko PFEZ	24.500€	24.500€
Kenkariarengatiko aurrezpena foru-lurraldean	0€	-15.000€
Ordaindu beharreko PFEZ	24.500€	9.500€
Errenta garbia PFEZ ondoren	55.500€	70.500€

** Ikusten da gutxieneko kuota likidoaren muga ere betetzen duela. Muga hori kontuan izanda, kuota likidua ezin da kuota osoaren %30 baino txikiagoa izan. Kasu horretan, 7.350 -tan geratuko litzateke eta, ikusten den bezala, ordaindu beharreko PFEZ 9.500 €-koa da.*

JARRAIPENEO INBERTSIOAK

Halaber, araudiak gerora egingo diren inbertsioetarako edo ekarpenetarako onurak aurreikusten ditu. Horrela, jarraian ageri diren baldintzak betez gero, inbertitzaileak %30eko kenkari osagarria aplikatu ahal izango dio bere buruari.

- **Kenkaria (%):** zergaldian dirutan ordaindutako kopuruen gaineko %30.
- **Jarraipeneko inbertsioa:**
 - » jatorrizko negozio-planean jasotakoaren arabera, erakunde berritzaile sortu berri batean, sortu eta 5 urteko epean, egindako inbertsioekiko osagarriak direnak, erakunde horretan aurrez finantzaketa-inbertsio bat edo gehiago egin ondoren, inbertsio horrek eta horiek kenkaria sortu du(t) enean erakunde berritzaile sortu berrientzat.
 - » Eratu eta 5 urteko epe horren beraren barruan zergadunak egindako harpidetza ondoko ordainketak, akzio- eta partaidetza-harpidetza horiek erakunde berritzaile sortu berri batean partzialki ordaintzen direnean.
- **Espezialitateak:**
 - » Aurreikusten den **kenkari-oinarri maximoak** barru hartzen ditu zergadunak egindako hasierako inbertsioa eta jarraipeneko inbertsio guztiak.
 - » **Ez** zaie eskatzen **mikroenpresa** edo **ETE** izatea.
 - » **EZ** zaie eskatzen zergadunak harpidetza egin aurretik erakunde **parte hartu izana**, ez zuzenean, ez zeharka.

ADIBIDEA

Ainhua. Egoitza fiskala Gipuzkoan dauka, eta 80.000 €-ko errenta. Iaz 50.000 €-ko inbertsioa egin zuen sortu berri den Startup berritzaile batean (kenkaria %30) eta horri zegokion kenkaria aplikatu zitzaion. Ekitaldi honetan beste karpen bat egin du, 5.000 eurokoa.

	PFEZ inbertsiorik gabe	PFEZ inbertsioarekin
Jarraipeneko inbertsioa	-	5.000€
Inbertitzailearen laneko errentak (ZO)	80.000€	80.000€
Zerga-arintze aurretik ordaindu beharreko PFEZ	24.500€	24.500€
Kenkariarengatiko aurrezpena foru-lurraldean	0€	-1.500€
Ordaindu beharreko PFEZ	24.500€	23.000€
Errenta garbia PFEZ ondoren	55.500€	57.000€

03

ZERGA PIZGARRIAK INBERTITZAILE PRIBATUARENTZAT - PERTSONA JURIDIKOA

Batzuetan, konpainiek beraiek erabakitzen dute beste enpresetan inbertsio-ahalegin bat egitea, edo partikularrek beraiek nahiago izaten dute sozietate baten bidez jardutea haien inbertsio-tresna gisa. Zer onura aplika dakieke sozietateei?

3.1 PIZGARRIA: SALBUESPENA ENPRESETAKO PARTAIDETZAK ESKUALDATZEAN

Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Lurralde Komuna

ONURA: SOZIETATE ESKUALDATZAILEAREN EGOITZAN ERRENTA POSITIBOAK EZ INTEGRATZEA

Oro har, beste erakunde batean duen partaidetza saltzea erabakitzen duen sozietate orok partaidetzak saltzerakoan duen besterentze-balioaren eta erosterakoan zuen balioaren arteko aldea ordaindu behar du.

Pizgarriaren ondorioz, salbuetsita geratzen dira erakundearen kapitalaren balore adierazgarriak edo funts propioak besterentzeagatik sor litezkeen errenta positiboak. Alegia, ez dira sarreraren artean sartzen akzioak edo partaidetzak saltzeagatik izandako irabaziak.

BETEKIZUNAK

- **Partaidetza esanguratsua:** besterendu aurretik konpainian partaidetza bat edukitzea horren tituluak \geq %5ean saltzen badira.
- **Partaidetza mantentzea:** partaidetzen %5 urtebetez, gutxienez, eduki behar da besterentzeko eguna aurretik.
- Partaidetzako sozietatea Sozietateen Zerga **ordaindu beharko du eta ez da salbuetsita egongo.**
- Inbertitutako sozietateak enpresa jarduera gauzatu behar du; hortaz, partaidetzako sozietate filialaren diru-sarreraren %85 **enpresa-jardueretatik** etorri behar da.

LABURPENA

	UE
Partaidetza, %	\geq 5%
Partaidetza mantentzea	gutxienez urtebete
Partaidetutako erakundearen betekizuna	Sozietateen Zerga ordaintzea eta salbuetsita ez egotea
Enpresa-jarduerak egiteagatik lortutako diru-sarrerak	\geq 85%

1. ADIBIDEA

X sozietateak %50eko partaidetza dauka Startup baten kapitalean eratu zenetik, 60.000 euro ordainduta. Handik bi urtera, inbertitzaileak 80.000 €-an besterendu du partaidetza.

	INBERTITZAILEA, PERTSONA JURIDIKOA
Inbertsioa	60.000€
Besterentzearen balioa [B.B]	80.000€
Sortutako gainbalioa [B.B - Inbertsioa]	20.000€
Besterentzeagatik salbuespena	20.000€
Ordaindu beharreko Sozietateen Zerga	0€
Zerga-aurrezkia [Gainbalioa x %24]*	4.800€

* Adibidean, Bizkaian aplikatzen den tasa erabili da. Beste balizko batzuetan, dagokion tasa aplikatuko litzateke

2. ADIBIDEA

Y sozietateak, Frantziako enpresa baten partaidetzak erosi ditu 20.000 € ordainduta; horrela, kapitalaren %30 eskuratu du taldeak. Handik bi urtera, 80.000 €-tan saldu du sozietatean duen partaidetza.

	INBERTITZAILEA, PERTSONA JURIDIKOA
Inbertsioa	20.000€
Besterentzearen balioa [B.B]	80.000€
Sortutako gainbalioa [B.B - Inbertsioa]	60.000€
Besterentzeagatiko salbuespena	60.000€
Ordaindu beharreko Sozietateen Zerga	0€
Zerga-aurrezkia [Gainbalioa x %24]*	14.400€

		PERTSONA FISIKOA				PERTSONA JURIDIKOA
		Bizkaia eta Araba	Gipuzkoa	Nafarroa	Lurralde Komuna	
Inbertsioa	Erosketa	100.000,00 €				
	Kenkaria (%)	10	20	0	30	- €
	Kenkaria (zerga negatiboak)	10.000,00 €	20.000,00 €	- €	30.000,00 €	- €
Desinbertsioa	Salmenta	150.000,00 €				
	Irabazia	50.000,00 €				
	Zerga-irabazia	- €	50.000,00 €	50.000,00 €	50.000,00 €	- €
	Ordaindu beharreko zergak (demagun %25)	- €	12.500,00 €	12.500,00 €	12.500,00 €	- €
Zergak guztira		-10.000€	-7.500€	12.500€	-17.500€	- €

GARRANTZITSUA: OHIKO GALDEREN GAINEKO IRUZKINAK

Zer da interesgarriagoa, startup batean inbertitzea inbertitzaile partikular moduan, ala Business Angel bezalako sozietate baten bidez inbertitzea?

Demagun startup batean %10eko partaidetza erosi dugula (sortu berrizat hartzeko bete behar dituen baldintzak betetzen ditu) 100.000 €-tan, eta seigarren urtean 150.000 €-tan saldu dugula.

		PERTSONA FISIKOA				PERTSONA JURIDIKOA
		Bizkaia eta Araba	Gipuzkoa	Nafarroa	Lurralde Komuna	
Inbertsioa	Erosketa	100.000,00 €				
	Kenkaria (%)	10	20	0	30	- €
	Kenkaria (zerga negatiboak)	10.000,00 €	20.000,00 €	- €	30.000,00 €	- €
Desinbertsioa	Salmenta	300.000,00 €				
	Irabazia	200.000,00 €				
	Zerga-irabazia	- €	200.000,00 €	200.000,00 €	200.000,00 €	- €
	Ordaindu beharreko zergak (demagun %25)	- €	50.000,00 €	50.000,00 €	50.000,00 €	- €
Zergak guztira		-10.000€	30.000€	50.000€	20.000€	- €

Bestalde, demagun proiektuak merkatua goitik behera aldatu duela eta inbertitzaile batek 300.000 €-tan eskuratu nahi dituela partaidetzak, eta irabazia 200.000 € dela.

Ondorio batzuk:

- Inbertitzaile partikularrak inbertsioaren gaineko pizgarriak ditu, kenkarien bitartez, eta horien konfigurazioa eta zenbatekoa aldatu egingo dira inbertitzailearen egoitzaren arabera.
- Nabarmendu behar da Bizkaian eta Araban zein mesedegarria den sozietateei eta inbertitzaile partikularrei aplikatzen zaizkien mozkinen tratamendua, salbuespen erregimenaren aplikazio posiblea dela eta.
- Lortzea aurreikusten den irabaziaren arabera, salbuespenaren aplikazio posiblearen ondoretarako, egin nahi den inbertsioaren zenbatekoaren arabera, kenkariak aplikatzeko aukera dela eta, interesgarriagoa izango da inbertsio-formula bat ala bestea.

3.2 PIZGARRIA: PARTAIDETZA MAILEGUAK.

Bizkaia, Gipuzkoa, Araba

Partaidetza-maileguetan ordainketa, oro har, interes bat izaten da, mailegu-hartzailearen negozioak (mozkinak, errenta-bolumena, eta abar) duen martxari buruzko aldagaien arabera kalkulatuta. Batzuetan, interes finko bat ere itundu daiteke.

Bada, sozietate batek beste bati halako ezaugarriak dituen mailegu bat ematen badio, mailegua zergapetuta ez egotea pizgarria izango da; hau da, ez da diru-sarrera gisa jasoko, mailegu-emailearen Sozietateen Zergaren aitorpenean, partaidetza-maileguen ordainketa, beti ere interes aldakorrak jasotzen badira, interes horiek erakunde mailegu-hartzailearen mozkinen ondorio direnean. Pizgarri hori **Foru Lurraldeetako** zergadunentzat izango da aplikagarria.

Interes finkotik eratorritako ordainketari ez zaio salbuespena aplikatuko.

Mailegu-formula oso gomendagarria da Startup-entzat. Horietan, lehen ekitaldietan, mozkinik ez izatea gerta daiteke; hortaz, ekitaldi horietan ez dute finantza-gastuen kargarik izango. Horregatik, arriskua partekatua izanik eta interesen ordainketa atzeratzeko aukera egonda, interes horiek interes finkoarekin ituntzen direnak baino altuagoak izan ohi dira.

Bestalde, ordainketa kapitalean daukagun partaidetza baten antzekoa da; alegia, negozioaren martxa onaren baitan dago. Nolanahi ere, ez du eskubide politikorik ematen; hortaz, mailegu-emaileak ez du sozietatearen erabakietan parte hartzen.

Horrela bada, sozietate batek ezaugarri horiek dituen mailegu bat beste bati ematen dionean, pizgarria hori ez dela tributazioaren menpe geratuko izango da, hau da, partaidetzako maileguen ordainketa ez da diru-sarrera gisa jasoko mailegu emailearen Sozietatearen Zergaren aitorpenean, horiek erakunde mailegu hartzailearen irabazien ondorioa direnean. Pizgarri hori **Foru Lurraldeetako** zergadunei aplikatuko zaie.

Salbuespena ez zaio aplikatzen interes finkotik sortutako ordainketari.

MOZKINA

Partaidetza-maileguetatik eratorritako interes aldakorren bidez lortutako etekinak ez integratzea edo salbuestea.

BETEKIZUNAK

- **Maileguaren xedea:** enpresa-jarduera edo proiektu berriak finantzatzea. Horiek ez dira aurrez egindakoak izango, ez erakunde mailegu-emailearen, ez mailegu-hartzailearen, ezta horiekin lotura duten pertsonen edo erakundeen aldetik ere, SZFAko 42. artikuluan jasotako baldintzetan.
- **Mailegu-emailearen partaidetza (%):** Mailegu-emaileak mailegu-hartzailearen kapitalean edo funts propioetan parte hartuko du, zuzenean nahiz zeharka, gutxienez %25ean.
- **Partaidetza mantentzea:** ordainketa jaso aurretik urtebete.
- **Salbuetsitako errenta honako hauetara bideratuko da:**
 - » Partaidetza-mailegu berriak ematera.
 - » Enpresa-kapitalizazioa sustatzeko erreserba hornitzera.
 - » Ekintzailtza sustatzeko eta ekoizpen-jarduera indartzeko erreserba berezia hornitzera (5 urtez ez da erabiltzeko moduan egongo).
- **Mugak:** Salbuetsitako zenbatekoak ondorengo kopuru hauetatik bakarra ere ezingo du gainditu:
 - » Mailegu-hartzailearen mozkinen %20 (partaidetza-maileguaren interesen aurretik), bider mailegu-emailearen partaidetzaren %a.
 - » Indarrean dagoen berandutze-interesaren tasa 1,5 aldiz (egungo muga 1,5 x %3,75 = 5,625 litzateke) Zergaldian zehar maileguak duen batez besteko saldoaren gainean.

** Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan aplikagarria.*

BESTELAKO IRIZPIDEAK

- Zehapen klausulak adostua ahal izango dira partaidetza-maileguaren aurretiazko amortizazioarengatik.
- Dena den, mailegu hartzaileak, bere funts propioen zenbateko bereko hazkundearekin konpentsatzen bada baino ezin izango du partaidetza-mailegua aurretiaz amortizatu, baldin eta hori aktiboen eguneratsetik ez badator.
- **Adi:** interesek atxikipenak dituzte, eta salbuespenak galarazi egiten du egindako atxikipenaren gaineko kenkaria; hortaz, mozkina, gaur egun, mailegu-emailearen zerga-tasaren eta atxikipen-tasaren arteko aldea izango da, %5 alegia.

Adibidea: 100.000 euro interes sortu dira, %19ko atxikipenarekin; horrenbestez, ordaintzaileak 19.000 euro atxikiko ditu. Mailegu-emaileak ez ditu 100.000 euro integratuko Sozietateen Zergan, horrela 24.000 euro aurreztuko ditu (aplikatu beharreko tasa %24 bada), baina ezin izango ditu berreskuratu atxikitako 19.000 euroak; hortaz, mozkina 5.000 euro izango da.

LABURPENA

	Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa	Estatua eta Nafarroa
Maileguaren xedea	Enpresa-jarduera/proiektu berriak finantzatzea	
Partaidetza, %	25%	
Partaidetza mantentzea	Urtebete, gutxienez	
Salbuetsitako errentaren helmuga	<ul style="list-style-type: none"> •Partaidetza-mailegu berriak ematea. •Enpresa-kapitalizazioa sustatzeko erreserba hornitzea. •Ekintzailatza sustatzeko eta ekoizpen-jarduera indartzeko erreserba berezia hornitzea (5 urtez ez da erabiltzeko moduan egongo). 	-
Salbuetsitako zenbatekoaren muga ondorengoak baino txikiagoa izango da	<ul style="list-style-type: none"> •Erakunde mailegu-hartzailearen mozkinen %20, interesen aurretik eta partaidetzaren arabera. •Indarraldian dagoen berandutze-interes tasaren %150 	

ADIBIDEA

Enpresa batek startup baten partaidetzen %50 dauka, eta horri partaidetza-mailegu bat eman dio, 100.000.000 €-koa. %20ko interes-tasa adostu da, interesen eta zergen aurretik Y sozietateak lortu duen mozkinaren gainean. Ekitaldi honetan 250.000 €-koa da.

	Bizkaia
Maileguaren zenbatekoa	100.000.000€
Y sozietatearen interes eta zerga aurreko mozkinak	250.000€
Interes aldakorrak (%20)	50.000€
Sozietateen Zergaren aurreko mozkinak (Oinarri zergagarria)	200.000€
X sozietatearen Bln ez sartzea (50.000€ X %50)	25.000€
Atxikipen aplikatu ez kengarria (%19)	4.750€
Zerga-aurrezkia %24ko interes-tasarekin	1.250€

Horrenbestez, jasotako interesen gaineko %5eko aurrezpena izango da onura.

3.3 EKINTZAIETZA SUSTATZEKO ETA EKOIZPEN-JARDUERA INDARTZEKO ERRESERBA

Bizkaia, Gipuzkoa, Araba

Pizgarri hori **Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako** zergadunei aplikatzen zaie. Ez dago halakorik Lurralde Komunan, eta Nafarroan, berriz, inbertsioetarako erreserba bereziaren (IEB) bidez konfiguratzen da. Erreserba hori ondorengo atalean azalduko dugu. Ilustrazio gisa, ondorengo atalean konparaziozko adibide bat jarri dugu

ONURA

Erreserba berezia, Sozietateen gaineko Zergaren zerga-oinarrian kenkaria aplikatzea dakarrena.

Alegia: ekitaldi bateko kontabilitate-emaiza aplikatzean, kopuru bat “Ekintzaietza Sustatzeko eta Ekoizpen Jarduera Indartzeko Erreserba Berezia” izeneko erreserbara eraman daiteke. Kopuru hori ezin izango da erabili hiru urtez, eta zenbatekoak Arauak adierazitako helburuetara bideratu beharko dira. Eratutako erreserbaren zenbatekoaren %60k zergapetutako mozkina gutxituko du.

KENKARIAREN KONFIGURAZIOA

- **Kenkaria (%):** erreserba berezi hori egingo den ekitaldiko kontabilitate-emaiza positiboaren zenbatekoaren %60. Kenkaria oinarriaren gainekoa izango da; hortaz, zerga-aurrezpena zerga-tasarengatik kenkariaren zenbatekoa izango da, adibidean ikus daitekeen moduan.
- **Urtean kenkariak izango duen gehieneko muga:** zergaldiko zerga-oinarriaren gaineko %45.

ZENBATEKOAREN ETA GAUZATZEAREN INGURUKO BETEKIZUNAK

- **Erreserbaren zenbatekoa:** ez du gaindituko inoiz ondare garbiaren %50.
- **Erreserba berezia erabili ezin izango den epea:** hiru urte.

- **Erreserbaren zenbatekoa 3 urteko epean, gehienez,** honako hauetara bideratuko da:
 - a. Kuotan kenkaria egiteko eskubidea eman duten aktibo ez-korronteak erostera.
 - b. Garapen jasangarria, ingurumena zaintzea eta hobetzea eta energia-iturriak efizientzia handiagoz aprobetxatzea ekarriko duten proiektuekin lotutako inbertsioetara eta gastuetara.
 - c. Kapitalean edo funts propioetan partaidetzak erostera; horiek, zuzenean edo zeharka, %5 izango dira, eta gutxienez 5 urteko iraunaldia edukiko dute⁵.
Aurrez, administrazioa lotesteko prozedura abiarazi beharko da; nahitaezkoa izango da aldeko ebazpena zerga-oinarria aurreikusitako baldintzetan murriztuko bada.
 - d. Inbertsioa 5 urtez mantenduko da, enpresa-proiektu berri bat gauzatzeko hasierako etapan, edo hazkunde-aukera handia duten enpresetan gauzatzeko fasean kapitalean izango duen partaidetzaren bidez. Halaber, enpresaren kudeaketan parte hartu ahal izango da, epe motzera errentagarritasuna lortzeko helburuarekin. Zerga-onura hori lehenengo 100.000 €-ko inbertsioek baino ez dute izango⁶.

EZ BETETZEA

Inbertsioa ez gauzatzeak berarekin ekarriko du zerga-oinarriari itzultzea aplikatu ez den zenbatekoaren %115.

Erabilpen-epea ez betetzeak berarekin ekarriko du zerga-oinarriari itzultzea igarotako urte bakoitzeko zerga-oinarria murriztu duten zenbatekoen %105.

⁵ Enpresa guztientzat lehen 5 urteetan.

⁶ Enpresa-proiektu garrantzitsuak dituzten ETEei bideratuta.

3.4 PIZGARRIA: INBERTSIOETARAKO ERRESERBA BEREZIA (IEB) NAFARROAN

Nafarroa

Lehen aipatu dugun moduan, pizgarri hori ez dago Estatuan ezta Euskal Autonomia Erkidegoan ere, eta honela konfiguratu da.

MOZKINA

Zerga-oinarri positiboa murriztu ahal izango da ekitaldian lortutako kontabilitate-mozkinetik datozen kopuruetan, horiek arauak ezartzen dituen baldintzetan eta betekizunetan inbertsioetarako erreserba berezi batera bideratzen badira.

KENKARIAREN KONFIGURAZIOA

- **Kenkaria (%):** erreserba berezi hori egingo den ekitaldiko kontabilitate-emaizaren %45 orokorra eta %60 enpresa txikientzat.
- **Urtean kenkariak izango duen gehieneko muga:** zergaldiko zerga-oinarriaren %40, gutxitu ondoren.

ZENBATEKOAREN ETA GAUZATZEAREN INGURUKO BETEKIZUNAK

- **Zuzkiduraren gutxieneko zenbatekoa** IEBra ekitaldian: 50.000 euro.
- **Funts propioak areagotzea:** ekitaldia ixtean erakundeak dituen funts propioak (horien mozkinekin hornitu zen IEB) zuzkidura egingo den ekitaldian zuzkidura horren zenbatekoan gehitu behar dira.
- **Funts propioak blokeatzeko aldia:** Funts propioak hiru urtez areagotuko dira.
- **Erreserbara bideratuko den zenbatekoa gehienez 2 urteko epean bideratuko da** (erreserba sortzen den egunetik kontaktzen hasita) ibilgetu materialeko elementu berrietara eta ustiapen edo jarduera ekonomiko bat gauzatzeko higiezinetan egindako inbertsioetara.

Elementu horiek subjektu pasiboaren beraren instalazioetan egongo dira funtzionamenduan 5 urtez, gutxienez.

EZ BETETZEA

Erreserba berezia legeak baimentzen dituen xedeetarako ez diren beste batzuetan erabiltzeak edo gauzatzek berarekin ekarriko du zerga-oinarriaren ezarritako kenkaria osorik edo zati batean galtzea.

LABURPENA

	Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa	Nafarroa	Estatua
Zerga-oinarriaren murrizketa, %	60%	%45 (Orokorra)	
Murrizketaren gehieneko muga	erga-oinarriaren %45	Zerga-oinarriaren %40	
Erreserbara egindako zuzkiduraren zenbatekoa	≤Ondare garbiaren gaineko ≤%50	Gutxienez 50.000 euro	
Funts propioak handitzea eta gerora mantentzea	-	Bai	
Funts propioak blokeatzea	-	3 urte	-
Gauzatzeko epea	3 urte	2 urte	
Erreserbak izan ditzakeen xedeak	Sozietateen Zergaren araudian tasatuak		
Ez betetzea	<ul style="list-style-type: none"> • Gauzatzea: ezarri ez den zenbatekoaren %115 itzultzea. • Epea: zerga-oinarria murriztu duten zenbatekoen %105 itzultzea. 	Egindako kenkaria galtzea	

1. ADIBIDEA

Sozietate batek erabaki du bere kontabilitate-emaizaren gaineko erreserba bat egitea: 225.000 €. Sozietate horren zerga-oinarria 300.000 € da.

	Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa	Nafarroa
Kontabilizatutako erreserba	225.000€	225.000€
Ekitaldiko zerga-oinarria	300.000€	300.000€
Zerga-oinarriaren murrizketa	135.000€	120.000€
Zerga-aurrezkia %24ko interes-tasarekin	32.400€	28.800€
Hartutako inbertsio-konpromisoa	225.000€	225.000€

Hortaz:

- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa: mozkin berdina lortzeko, bere kontabilitate-emaizaren gainean erreserbarako zuzkidura egiten duen enpresak 39.000 euro ordainduko ditu Sozietateen Zergaren aitortzean, erreserba berezi hori zuzkitu izan ez balu Sozietateen Zergan ordaindu beharko lituzkeen 72.000 euroekin alderatuta.
- Nafarroa: mozkin berdina lortzeko, bere kontabilitate-emaizaren gainean erreserbarako zuzkidura egiten duen enpresak 43.000 euro ordainduko ditu Sozietateen Zergaren aitortzean, erreserba berezi hori zuzkitu izan ez balu Sozietateen Zergan ordaindu beharko lituzkeen 72.000 euroekin alderatuta.

3.5 BERARIAZKO KENKARIA I+G+b FINANTZATZEAGATIK

Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa

Oso neurri interesgarria da inbertitzaileentzat, osagarri teknologiko altuko startup-etara hurbiltzeko aukera ematen dielako, eta pizgarri ekonomiko garrantzitsua eskaintzen dielako.


Neurria Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan ezarri daiteke, konfigurazioa eta mugak, lurraldearen arabera, desberdinak badira ere.

Pizgarria honetan datza: beste zergadunek burutzen dituzten ikerketa- eta garapen-proiektuak finantzatzen parte hartzen dutenei aplikatzen zaien kenkaria, betiere Sozietateen Zergaren araudiak I+G+b-ko jarduketak gauzatzeko kontzeptuagatik kenkari-eskubidea sortzeko ezartzen dituen baldintzak betetzen badira.

PIZGARRIA: ZERGA-KREDITUAK LAGATZEA

Beste zergadun batzuek ikerketa- eta garapen-proiektuak finantzatzen parte hartzen dutenek kenkari bat aplikatu ahal izango dute, eta finantzaketa horren ondorioz, %20ko edo %25eko errentagarritasun fiskala lortu ahal izango da.

Bestalde, ikertzaileak inbertitzailearen finantzaketa jasoko du I+G+b jarduerak sortzen duen I+G+b-rengatik kenkariak lagatzearen ordainetan. Egoera normaletan, ezin dira aplikatu, zenbait abagune direla eta.



KONFIGURAZIOA ETA BETEKIZUNAK BIZKAIAI ETA NAFARROAN

- Finantzaileak I+G+b proiektuak finantzatzeko funtsak jarriko ditu. Funts horiek jasoko dituenak ez ditu itzuli beharko.
- Funtsak jaso dituenak I+G+b proiektua landuko du.
- I+G+b proiektua egingo duenak dagokion Kalifikazio Fiskalaren Txosten Teknikoa eskatuko dio erakunde eskudunari, eta lortu beharko du.
- Biek finantzaketa-kontratua sinatu beharko dute, araudiak eskatzen duen gutxieneko informazioarekin.
- Ikertzaileak uko egingo dio I+G+b-rengatiko kenkariak aplikatzeari, guztiz edo zati batean.
- Finantzaileak proiektua garatzeari dagokion eta inbertitzaileak aplikatzen ez duen kenkaria aplikatuko du: finantzaketan jarritako zenbatekoen **%120 Bizkaian** eta **%125 Nafarroan**.
- Soberakina I+G+b proiektua garatzen duenak aplikatu ahal izango du.
- Ezin izango da kenkari hori aplikatu proiektuaren finantzaileak hura burutuko duen zergadunarekin lotura badu
- Mugak **Bizkaian**:
 - » Kuota likidoaren %35, muga duten gainerako kenkariekin batera.
 - » Hiru lurraldeen araudian konfiguratutako gutxieneko tributazioa aplikatuko da.
- Mugak **Nafarroan**:
 - » Nafarroan mugarik gabeko kenkarien barruan aurreikusten da.

KONFIGURAZIOA ETA BETEKIZUNAK GIPUZKOAN

Pizgarria modu berean konfiguratzen da Gipuzkoan, eskakizun berberak exigituz, gehi ondoren adierazten direnak:

- Finantzaileak eta horrekin lotura duten pertsonak edo erakundeak ezin dute partaidetzarik eduki proiektua gauzatzen duen erakundeak; aurrez, pizgarria ezarri baino 3 urte lehenagotik, proiektua gauzatzen den bitartean, ezta bukatu eta hurrengo hiru urteetan ere.

- Funtsak jaso dituenak I+G+b proiektua landuko du.
- Finantzaileak proiektua garatzeari dagokion eta inbertitzaileak aplikatzen ez duen kenkaria aplikatuko du: finantzaketan jarritako zenbatekoen **%120, gehienez**.
- Ikerketa, garapen nahiz berrikuntza teknologikoaren proiektua gauzatuko duen zergaduna **eratu berriko erakunde berritzailea**⁷ izango da.
- **Mugak**:
 - » Pizgarri hau dela-eta, inbertitzaile batek bere taldearekin batera bultzatutako kenkarien batura, ezin izango da 200.000 eurotik gorakoa izan, hiru urtez jarraian.
 - » Ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoaren proiektua burutuko duen zergadunak, eta horrekin batera taldea osatzen duten erakundeek, pizgarri hau aplikatuta ezin izango dute 200.000 eurotik gorako finantzaketa jaso hiru urtez jarraian.
 - » Kuota likidoaren %35, muga duten gainerako kenkariekin batera.
 - » Hiru lurraldeen araudian konfiguratutako gutxieneko tributazioa aplikatuko da.

BESTELAKO IRIZPIDEAK

Proiektuaren jabetza intelektuala edo industrialia proiektua gauzatuko duen zergadunarena izango da, beti.

⁷ Erakunde berritzaile sortu berri gisa ulertuko da, aurreko bost urteen barruan eratuta egonda, eskakizun hauetakoren bat betetzen duena: (i) Berehalako etorkizunean, produktu, zerbitzu edo prozesu berriak edo bere sektorean teknikak duen egoerarekin alderatuta nabarmen hobekak direnak eta teknologiaren edo industriaren ikuspegitik porrot egiteko arriskua dutenak gauzatzen ditu; edo (ii) I+G+b jarduerak egitetik sortutako gastuak eta inbertsioak bere ustiapen gastuen %¹⁰ekoak dira gutxienez, akzioak edo partaidetzak sinatu aurreko hiru zerga epealdietatik batean behintzat.

LABURPENA

	Bizkaia	Nafarroa	Gipuzkoa
Finantzatzailea	<ul style="list-style-type: none"> Funtsak jarriko ditu I+G+b proiektuak finantzatzeko. Ez du funtsen hartzailearekin loturarik izango. Funtsak jarriko ditu I+G+b proiektuak finantzatzeko. Ez du funtsen hartzailearekin loturarik izango. 		<ul style="list-style-type: none"> Funtsak jarriko ditu I+G+b proiektuak finantzatzeko. Ez du hartzailearen partaidetzarik edukiko (3 urte lehenago, proiektuan zehar eta 3 urte ondoren).
Hartzailea	<ul style="list-style-type: none"> I+G+b proiektua gauzatuko du. 		<ul style="list-style-type: none"> Eratu berriko erakunde berritzailea. I+G+b proiektua gauzatuko du.
Mugak	<ul style="list-style-type: none"> Kuota likidoaren %35, gainerako kenkariekin batera. Gutxieneko tributazio-arauak. 	<ul style="list-style-type: none"> Gutxieneko tributazio-arauak. 	<ul style="list-style-type: none"> Kuota likidoaren %35, gainerako kenkariekin batera. Gutxieneko tributazio-arauak. Ez finantzatzaileak, ez ikertzaileak ez dute jasoko, pizgarri honengatik, 200.000 €-tik gora 3 urtez.
Errentagarritasun maximoa	120%	125%	120%

ADIBIDEA

Enpresa batek inbertitu eta sustatu nahi du startup baten I+G garatzea. Demagun enpresak 1.000.000 €-ko mozkin duela; I+G proiektu bat 70.000 €-tan finantza dezake, eta horren trukean 84.000 €-ri dagozkion kenkariak izan ditzake. Horrek esan nahi du errentagarritasuna %20koa dela.

	Bizkaia eta Gipuzkoa	Nafarroa
Zerga-oinarria	1.000.000€	1.000.000€
Karga-tasa	24%	24%
Kuota osoa	240.000€	240.000€
Kenkari-muga, %	35%	35%
Aplika daitekeen kenkari maximoa	84.000€	84.000€
Errentagarritasuna, %	20%	25%
Egindako finantzaketa	70.000€	63.000€
Lortutako errentagarritasuna	14.000€	21.000€

04

LABURPENA

Ikusi dugunez, neurri ugari eta garrantzitsuak daude; horiek, proiektu ekintzaileetan inbertitzeko pizgarrien ekosistema bat ahalbidetzen dute. Onura bakoitza egokia izango da inbertsio batekin lotura duten inguruabar zehatzetarako.

Betekizunak eta horien aplikazioa arretaz aztertu behar dira, ezin hobeto aprobetxatu ahal izateko, gida honek izan dezakeena baino sakontasun handiagorekin.

05

ERANSKINA:
kenkaria enpresa
sortu berrietan
edo berriki
sortutakoetan
inbertitzeagatik
[autonomia-
erkidegoak (AAEE)]

AAEE		ANDALUZIA	ARAGOI	BALEARRAK	KANTABRIA	GAZTELA ETA LEON	KATALUNIA	EXTREMADURA	GALIZIA		MADRIL	MURTZIA
Zenbatekoa		20%	20%	30%	15%	20%	30%	20%	30%	30%	30%	20%
Oinarria (inbertsioa guztira)		✓	60.000ren gaineko soberakina	✓	✓	100.000/50.000 pertsonalaren arabera	✓	✓	✓	Inbertsioa/mailegua	✓	✓
Muga/urtea		4.000	4.000	600x3 urte	1.000	10.000	6.000 guztira	4.000	6.000	20.000 (oro har)	6.000	4.000
Inbertsio betekizunak	SA, SL, lan-soz.	Eta koop.	guztiak	guztiak	ETEak	X	✓	eta koop.	eta koop.	eta koop.	eta koop. (EZ laborala)	eta koop.
	Partaidetza max.	40%	40%	40%	40%	%45, gutx %0,5	35%	40%	%40, gutx %1	%40, gutx %1	40%	40%
	Mantentzea (urteak)	3	3 gutx, 12 gehi.	4	3	3	3	3	3	3	3	3
	Ez harr. exekutiboa edo lanekoa	X	✓	X	✓	X	✓	X	X	X	X	✓
Sozietate betekizunak	Ekonomia-jarduera garatzea	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
	Egoitza lurraldean	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
	Gutxieneko pertsonala	1	1	1	1	X	1	1	1	1	1	1
	Pertsonala gehitzea (handitzea)	1	X	Enpleguari eustea	1	Enplegatuak, autonomoak, familiarrak-laguntzaileak	X	1	1	1	1	1
	Erakundearen antzintasuna (handitzea)	3	X	2	3	X	3	3	3	3	3	3
	Bestelako betekizunak	X	LH gehi 400.000€	Negozio zifra gehienez 2.000.000€	X	Sozietatearen ziurtagiria	Negozio zifra gehienez 1.000.000	X	X	*Aurrekoarekin bateraezina	Prestazio osagarri profesionala	X

EKINTZAILETZAN ETA BERRIKUNTZAN INBERTITZEKO ZERGA PIZGARRIEN GIDA

